

# Ermua Informazioa

Martxoak 2023 | [www.ermua.eus](http://www.ermua.eus)



AYUNTAMIENTO DE ERMUA  
ERMUKO UDALA

## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

# Guztiok bat, saihesbidearen alde!

Ermuko Udalak **MANIFESTAZIOA** deitu du martxoak 30ean, osteguna, arratsaldeko 7etatik aurrera, saihsbidea atzerapenik gehiagorik gabe berrekin eta amaitu dadila Bizkaiko Aldundiari eskatzeko. Manifestazioa Orbe Kardinalaren plazatik abiatuko da.

Protesta jarduera hori Udalak deitzen du, herritarren interesak ondoen defendatu eta ordezkatzeko dituen erakunde delako. Herritar guztiak ordezkatzeko dituen erakunde anitza baita, alderdi politikoaren, siglen edo logotipoen gainetik. Guztiok batera azpiegitura hori aldarrikatzeko unean gara, hitzartutakoa eta proiektuan jasotakoari jarraiki egin dadin.

# Ermuko SAIHESBIDE eta Kitt

## Zergatik mobilizatu behar dugu?

Foru Aldundiak entzun, aurrekontuan sartu eta saihsbidea gauzatu dezan, Ermuarentzat premiazkoa baita

**BATASUNA**, indarraren oinarri delako. Saihsbideak ermuar guztientzako onura eta hobekuntza ekarriko du, kolore, sigla eta interesen gainetik. Enpresa-lehiakortasunean, denbora murrizketan, segurtasunean, airearen kalitatean eta ingurumenean hobera egingo dugu. Hitz batean esanda, guztion bizi-kalitatea hobetuko.

**POSIBLE** eta **JUSTIZIAZKOA** delako. Aldundiak badu proiektua eta horretarako dirua. Ez du egin, hitzartutakoa eta emandako hitza ez du bete. Lurraldean beste hainbat proiektu egitea

lehenetsi ditu, Ermura gerorako utziz eta bertako biztanleon bizi-kalitatea atzeratuz.

**BEHARREZKOA** delako. Borrokarik gabe ez baitago aurrerapausorik. Historiak jasotzen duenez, lorpenak aurrez aurre jarri eta erantzukizunez jokatu lortzen ohi dira. Gizartearen eta lurraldearen aurrerapenik gizaritearen konpromiso aktiboa eskatzen dute. Gaur egun saihsbidearen lehen fasea dugu (Hegoaldea), besteak beste, hori eskatzeko bere garaian mobilizatu izan ginelako.

Deialdia hau zirkulazio eta, bereziki, trafiko astunak edo kamioak sortzen dituzten ondorioak eta arazoak pairatzen ditugun guztiontzat da:

zikinkeria, zarata, kutsadura, segurtasun eza, auto-ilarengatik denbora galtzea, gure enpresen lehiakortasuna murriztea, eta abar eragiten dituenak.

Deialdi zuzena da nazkatuta gauden eta konponbidearen zain egoteaz nekatuta gauden guztiontzat, orain arte pazientzia izan eta errespetuz jokatu dugunontzat. Orain, ozen esango dugu **NAHIKOA DA!**, beste behin hitza bete ez eta alboraturik utzi baikaituzte, garena garelako (umilak eta pluralak) eta gauden lekuan gaude-lako (probintziaren mugan, Bilboko erdigunetik 45 kilometrorra).

# Saihesbidearen premiak gora egin du, ermuko trafiko astunak bezala

## Edukierei buruzko Foru Aldundiaren datuek hala jasotzen dute

Bizkaiko Foru Aldundiak aldian-aldian trafiko-edukierei buruz egiten dituen azterketek adierazten dute udalerriko hirigunean trafiko astuna nabarmen handitu dela. Zehazki, kamioiak Zearkaletik Urtiako industrialdera sartzeko igarotzeari dagokionez, eta Hiriko VI. Mendurrena, Zubiaurren goiko aldea eta Okin Zuri kaleetan, Goitondoko industrialdera joan-etorriko garraioei dagokienez.

Errepideen sailak trafikoaren pasabidea eta intentsitatea neurtzen ditu (teknikoki edukiera), gailua edo estazioak instalatuz. Ermuko datuak biltzen dituen 117 zenbakia da, bost neurgailu barne dituen, udalerrirako sarbidearen arabera: 117-A, N-634 errepidea, Areitio-Ermua mendebaldea; 117-B Ermua eta Mallabia artekoa, BI-3302 errepidetik, 117-C Ermua eta Gomezeaga artekoa, BI-2301 errepidetik; 117-D Ermutik BI-3344 errepidetik, Gipuzkoako lurraldearen mugan; eta, azkenik, Zaldibarko N-634 errepidea, Ermuko saihesbidetik.

117-C estazioak BI-2301 errepidetik Trabakuara eta Goitondo industrialdera igarotzen den trafikoaren eguneroko intentsitatea neurtzen du, eta adierazten du astelehenetik ostiralera bitarteko lanegun batean 767 ibilgailu astun igarotzen direla VI. Mendurrena, Zubiaurre garaia eta Okin Zuri kaleak zeharkatzen dituztenak. Horrek esan nahi du 2010ean argitaratutako edukiera %75

## TRAFIKOAREN BILAKAERA BIZKAIKO ERREPIDEETAN

### BIZKAIKO NEURKETAK EDO AFOROAK



ESTA-ZIOA	MOTA	ERREPIDEA	HERRI	TARTE ZATIA	Eg. Bb Astu %.	IBILGAILUAK/EGUNEKO (Urteko Bb)				Laneguneko batz bestekoa	
						EBZE	Laneguna	Larunbata	Igandea	Astunen %	Ibil. Astunen Kop.
117A	3	N-634	Ermua	Areitio - Ermua Oeste	13,3	4.840	5.805	3.004	1.849	14,5	841
117B	3	BI-3302	Ermua	Ermua - Mallabia	13,0	2.689	3.181	1.775	1.144	13,9	442
117C	3	BI-2301	Ermua	Ermua - Gomezeaga	15,3	3.891	4.732	1.944	1.635	16,2	767
117D	1	BI-3344	Zaldibar	E. Ermua - L.T.H. Gipuzkoa	8,4	9.679	11.265	6.585	4.844	8,9	1.002
117E	1	N-634	Zaldibar	Vte. de Ermua	6,6	7.108	8.388	4.569	3.245	7,2	607

baino gehiago handitu dela.

117-B estazioak BI-3302 errepidetik Mallabira eta Urtia industrialdera igarotzen den trafikoaren eguneroko intentsitatea neurtzen du, eta adierazten du astelehenetik ostiralera lanegun batean

442 ibilgailu astun igarotzen direla Kaltxango eta Zearkale zeharkatzen dituztenak. Horrek esan nahi du 2010ean argitaratutako edukiera %55 baino gehiago handitu dela.




103		
A	3.880	5,0

103 = Nº de Estación / Neurketa-estazioaren zk.  
 A = Estación de aforo / Neurketa-estazioa  
 3.880 = INTENSIDAD MEDIA DIARIA (IMD) / EGUNEKO BATEZ BESTEKO ZIRKULAZIO-EMARIA (IMD)  
 5,0 = % vehículos pesados en día laborable / Ibilgailu astunen % lanegun batean

INTENSIDAD MEDIA DIARIA (IMD)  
EGUNEKO BATEZ BESTEKO INTENSITATEA (EBBI)

MENOS DE 1.000 BAINO GUTXIAGO	—
1.000 - 5.000	—
5.000 - 10.000	—
10.000 - 20.000	—
20.000 - 50.000	—
50.000 - 75.000	—
75.000 - 100.000	—
100.000 - 125.000	—
MAS DE 100.000 BAINO GEHIAGO	—



# Erakundeak egindako kudeaketak

## Egindako kudeaketak:

Udal honek errespetuzko jarrera izan du Bizkaiko Foru Aldundiarekin, lankidetzaz estukoa; egiten uztekoa, bai erritmo edo tempoan, bai hartutako erabakietan. Hala ere, ez da makurtu edo atsegina izan, konponbide osoa eskatu baitu, diseinatu zen bezala eta aurreikusitako epeetan. (hegoaldeko nahiz eta mendebaldeko saihebidia). Egia esan, Bizkaiko Foru Aldundiak huts egin digu nabarmen bizkaitar guztioi eta Durangoaldea eskualdeari, eta bereziki, Ermuan eta Mallabian bizi garen guztioi.

1. Saihebidia osatzea eskatu zuen Uretamendiko biribilgunea eta San Lorentzokoa lotzen zituen 1. fasea inauguratu eta jardunean jartzeko ekitaldian.
2. Bizkaiko Batzar Nagusietan azpiegituraren beharra aldarrikatu du lurraldean inbertitzeko lehentasunak finkatzeko eztabaidan.
3. Eskatu zuen Mendebaldeko saihebidia Lurraldearen Arloko Planaren lehen zirriborroan sartzea, 2018ko irailean.
4. 2018ko irailean Foru Diputatuarekin egindako bileran, Urtia agintaldi honetan eta Goitondo hurrengoan egiteko konpromisoa jaso.
5. Alkateak bilera egin zuen Azpiegiturako foru diputatuarekin 2021eko irailean. Bertan, Ingurumen Proiektuaren iraungitzeari buruzko informazioa jaso zuen.
6. Erregidoreak desadostasuna adierazi. Proiektuaren iraungitzea gertatzen da alde aurretik ez eguneratu edo berritzeagatik eta obra gauzatu ez izanagatik.
7. Lehen zinegotziak Urtia eta Goitondoko bideak bata bestearen atzean edo aldi berean, atzerapenik gabe, egiteko eskatu du, Urtiako proiektuaren idazketa amaitu ondoren. Ez du erantzunik jaso.
8. 2022ko maiatzean, alkateak premiazko bilera bat eskatu eta idazki bat bidali zuen, programatutakoa ez zela bete adierazteko eta herritarren gogaitasun-sentsazioa azpimarratzeko. Erabakiak hartzeaz hitz egin zuen, besteak beste, mobilizazioei berriro ekiteaz.
9. Gai Orokorretako Batzardeetan izandako kontaktuen berri eman du, baita bilera bat eskatzeko idazkia bidali duela ere.
10. 2023ko urtarrilaren 5ean, udalordezkaritza duten alderdiei dei egin zien saihebideari buruz hitz egiteko.
11. Alkatetza bozeramaileekin bildu zen urtarrilaren 10ean, eta esan zien mozio bateratu bat prestatzen ari zela eta mobilizazioak hasteko asmoa zuela, Aldundiak behar bezalako erantzunik ematen ez zuelako.
12. Aurtengo urtarrilaren 17an mozioa aurkeztu eta 20an erregistratu zen.
13. Urtarrilaren 24ko Batzardean otsailaren 4rako, astearterako, mobilizaziorako deia egitea proposatu da, talde guztiek aho batez babestuta.
14. Otsailaren 4an lehenengo kontzentrazioa egin zen.
15. Otsailaren 11n, Bozeramaileen Batzardeari beste mobilizazio batzuk proposatu zitzaizkion, eta, zehazki, manifestazio bat. Hilaren 14an, martxoaren 1ean, 11n edo 18an egiteko aukera planteatuz.
16. Otsailaren 18an jakin zen Plataformak martxoaren 10erako deitu zuela, eta, beraz, hileko 30eko ostegunera arte atzeratzea planteatu zen.
17. Udaleko Bozeramaileen Batzardeak manifestaziorako deialdia egitea erabaki du 2023ko martxoaren 30ean, arratsaldeko 7etan.

## Zer eskatzen dugu aspaldidanik?

Egiteko dauden tarreak bata bestearen atzetik edo aldi berean egitea, atzerapen gehiagorik gabe, Urtiako egikaritze-proiektua onartu eta gero. Ez da onargarria 5 urte igaro izana lehenengo zatia ireki zenetik, eta denbora horretan euro bakar bat ere ez bideratzea onartutako proiektuarekin eta diseinuarekin aurrera egiteko, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak oparotasun ekonomikoa eta diru-sarrera handiak izan dituen. Hori ez egitearen erantzukizuna Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailarena da, Imanol Pradales Diputatuarena.

Galdu den denbora horretan, saihebidiearen proiektuak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlana iraungi da. Berritortzatzeak 600.000 €-ko kostatuko digu bizkaitar guztioi, atzerapen denbora gehiago suposatzeaz gain. Horregatik, azterketa hori idazteko

prozesua eta epea bizkortzea eta laburtzea eskatzen dugu. Bai eta exekuzioa tiraka egitea ere, etenik gabe, fase bat bestearen atzetik. Urtia eta Goitondoko poligonoetara sartzeko eta irteteko proiektutako bideak eta konponbideak egin behar dira, bestela ez baitugu hirigune erditik pasatzen den trafiko astunaren arazoa konponduko.

Udal honentzat ez da onargarria Ermuko mendebaldeko saihebidia eraikitzeako proiektuaren egunera-keta idazteko laguntza teknikoko zerbitzuak ia 3 urte (32 hilabete) behar izatea. Ezta hurrengo Lurralde Plan Sektorialaren (LAP) dokumentuaren zain egon beharra ere, gure udalerraren saihebidia aurreko dokumentuan ere aurreikusita zegoelako.



# Berriro kalera, hirugarren aldiz!

Gure herriko saihsbidearen hirugarren mobilizazioaren aurrean gaude. Ermuak urte asko daramatza azpiegitura horren beharra eskatzen eta justifikatzen. Ez da tokiko arazoa, batez ere ermuarroi eragiten digu, baina baita eibartarrei ere, eta bereziki Mallabiakoei, Zaldibarko, Berriko, Markinako edo Ondarroako herritarrei. Eskualde osoko arazoa da, zonaldea Bizkaiko lurraldean egituratzeko.

Hori horrela, Ermua da bere herrigunea hiru errepidek zeharkatzen duten herri bakarra: BI-

3344 errepidea, -N-634 ohia-; BI-3302 errepidea, Ermua eta Mallabia lotzen dituen Zearkale herrixkatik, eta bere hiri-bilbe trinkoa Seigarren Mendeurrenetik zeharkatzen duena, Trabakua Gainarekin lotzeko (BI-2301). Azken bi errepide horietan kamioi askok ibiltzen dira Urtia (Ermua) eta Goitondo (Mallabia) industrialdeetara sartu eta irteteko egiten duten ibilbidean. Inguruko industria-jarduerako kamioi ugari, hornitzaileen materialak dakartzaten trailerrak, lehengai horiek landu edo as-

kotariko produktu bihurtu ondoren merkatura bidaltzen direnak.

Ez diogu jarduera industrialari gaitzesten ez eta aurpegiratzen; izan ere, jarduera hori oso beharrezkoa da enplegu-tasari eusteko eta aberastasuna sortu nahiz banatzeko, zalantzarik gabe horiek gure ongizate kolektiboaren eta gizarte gisa aurrera egitearen oinarri baitira. Ezta enpresei edo garraiolariari ere, horiek ere kaltetuta baitaude, egoerak beren lana baldintzatzen baitute eta nekagarritasuna areagotzen.

1. 2000ko hamarkadaren hasieran saihsbidea aldarrikatzen hasi ginen. 2000-2004 urteetan, hainbat bilera egin ziren lurraldeko agintariek.
2. 2008. urtearen bukaeran Ermuko saihsbidearen proiektua idazteko deialdia egin eta lehiaketa deitu zen. (2008.11.18)
3. EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak obra 2009ko ekitaldiko aurrekontuan sartzeko akordioa hitzartu zuten.
4. 2009. urtearen erdian Jose Luis Bilbao Diputatu nagusiak eta Itziar Garamendi saileko arduradunak proiektuaren maketak aurkeztu zituzten Zornotzan. (2009.06.29)
5. 2009ko irailean, bi zatitan banatutako proiektua aurkeztu zuten: hegoaldeko saihsbidea eta mendebaldeko saihsbidea. Maketak eta proiektua erakutsi zituzten Ermuan.
6. 2010ean Aldundiak Ermuko saihsbidearen trazadura-proiektua eta Bide Plan Berezia onartu zituen (2010.04.12).
7. 2011ko urtarrilean lehiaketara aterako da Ermuko saihsbidearen lehen fasea.
8. 2012ko urtarrilean, Aldundiak bere kabuz iragarri zuen krisiaren ondorioz ardatz erradialak eraikitze lanak bertan behera utziko zituela.
9. Udalak eta herriak ez zuten geldiaraztea onartu eta mobilizazioak hasi zituzten.
10. 2012ko otsailaren 18an manifestazioa eta errepidea moztu genuen Ermuan.
11. 2012ko maiatzaren 19an: manifestazioa Bilbon. Atxuritik Diputaziora.
12. 2014ko udan saihsbidearen 1. fasea hasi zen.
13. 2018an, Uretamendiko tunelak eta AP-8 ordainlekuko kabina berriak ireki ziren.

